



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Abentura Plaiaundin: Energia jokoan

Batxilergoa

ARLOA/IKASGAIA: Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak

Prestatu erronkaz, aurkikuntzaz eta dibertsioz beteriko abentura baterako! Plaiaundiko parkearen bihotzean ginkana bat izango duzue zain taldeka, inguruko eta Ekoetxea Txingudiko hainbat txokotan barrena.

Erronkak gainditzen dituzuen bitartean, energia berriztagarriak gure eguneroko bizitzaren parte direla ikusiko duzue. Eta planeta zaintzeko giltzarri direlako ere! Zuen sormena, gaitasuna eta talde-lana izango dira zuen tresnarik onenak. Prest al zaudete zuen energia jokoan jartzeko?